

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere prestakuntza- eta ikerketa-eskaintza azalduko die Gansuko hiru unibertsitateei, Nafarroako Gobernuak Txinara egindako bidaia instituzionalean

Bi herrialdeetako ikasleen trukea, gaztelaniazko prestakuntza irakasle txinatarrentzat eta neurrira egindako ingeniartzako eta nekazaritzako elikagaien ikastaroak bultzatu nahi dira

Asteazkena, 2018.eko irailak 26

Enpresa-, hezkuntza- eta kultura- arloetan lankidetzak ezartzeko helburuarekin, Iruñeko Udalak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak parte hartu duten Nafarroako Gobernuaren bidaia instituzionalaren markoan, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ordezkariak batek aste honetan Gansu probintzia txinatarreko hiru unibertsitate bisitatuko ditu, haren prestakuntza- eta ikerketa-eskaintza aurkezteko asmoz.



Ezkerretik eskuinera: Miguel Ángel Adán jauna Nafarroako Nazioarteko Planaren ordezkaria eta Enrique Armendáriz jauna Nafarroako Unibertsitate Publikoaren izenean (laugarrena ezkerretik hasita.), Lanzhou-ko Unibertsitatara bisitaldian.

Hauek dira hain zuzen Nafarroako Unibertsitate Publikoak bisitatuko dituen hiru unibertsitate txinatarrek: Lanzhou, Gansu Agricultural University eta Lanzhou Jiaotong. Nafarroako erakundeak

Nafarroako Unibertsitate Publikoak Txinara egindako bisita honekin bi herrialdeetako ikasleen mugikortasuna bultzatu nahi du (bereziki Unibertsitate Masterra Bigarren hezkuntzan egin dutenena, espainiarako irakaskuntza-praktikak han egin ditzaten). Ildo horretatik, Nafarroako erakundeko irakasleen laguntzarekin Cervantesen hizkuntza-eskolak ematen dituzten irakasle asiarren prestakuntza sendotu nahi da.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ordezkariak, Enrique Armendáriz jaunak (Nazioartekotzeko Errektoreordetzako Nazioarteko Harremanen eta Lankidetzaren Arloko zuzendaria) bereziki ikasleei zuzendutako titulu propioa aurkeztu du: Espainiako Hizkuntzan eta Kulturaren Masterra: Marketina eta Turismoa. Master hori zubi moduan erabil daiteke Nafarroako Unibertsitate Publikoan graduondoa egiteko.

Neurrira egindako prestakuntza

Nafarroako erakundeak Txinako unibertsitateei haien interesen eta beharren arabera diseinatutako prestakuntza-ikastaro laburrak eskaintzen dizkie, Nafarroako campusak irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren arloetan jada ibilbide luzea duen eta Nafarroako bi sektore ekonomiko garrantzitsuri lotutako diziplina hauetan: nekazaritako elikagaiak eta industria-ingeniaritza.

Azkenik, Nafarroako ordezkariak aukera ezberdinak aztertzen ditu Nafarroako erakundeko irakasleek Txinako unibertsitateetan ikerketa-egonaldiak egin ditzaten, eta, aldi berean, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikerketa-taldeek herrialde hartako zientzialariak har ditzaten, lanaldi laburretarako.